

2012ko MARTXOAREN 13ko UDALBATZARRA
PLENO DE 13 DE MARZO DE 2012

BERTARATUAK / ASISTEN:

ALKATEA / ALCALDESA: M^a SOL MARGARITA TABERNA IRATZOKI

ZINEGOTZIAK / CONCEJALES:

JON ABRIL OLAETXEA, FERNANDO BERASAIN GAINZA, NEKANE PEREZ IRAZABAL. GARAZI TABERNA TELLECHEA, JOSE MANUEL PORTU BERASATEGUI, ANDREA GOURAUD ALZUGARAY, UGAITZ ADO PRIETO, ISIDORA AGUIRRE UBIRIA, JUAN LOSA OCARIZ.

IDAZKARIA / SECRETARIA: PILAR CHUECA INTXUSTA.

BERTARATU EZ DIRENAK / NO ASISTEN:

SANTIAGO ALZUGUREN MACHICOTE (lanarengatik kanpoan/ fuera por motivos de trabajo)

**Tokia: BERAko Herriko Etxea
(Beralandeta, Osoko bilkurak egiteko gaitu den lokala).**

Eguna: 2012-03-13

Ordua: 19:30

Bilera-mota: ohikoa, 1. deialdia

Lugar: Casa Consistorial de BERA
(Beralandeta, lugar habilitado para realizar los Plenos).

Día: 13-03-2012

Hora: 19:30

Tipo sesión: ordinaria, 1^a convocatoria.

TRATATZEKO GAIK:

ASUNTOS A TRATAR:

1.- AZKENEKO AKTA ONARTZEA.-

1.- APROBACIÓN ACTA SESIÓN ANTERIOR.-

2012.eko otsailaren 16an egindako bileraren akta ikusirik, aho batez, ONARTU DUTE.

Vista el acta de la sesión celebrada el día 16 de febrero de 2012, por unanimidad SE APRUEBA.

2.- NEKANE PEREZ IRAZABAL: ZINEGOTZI KARGUA HARTZEA.-

2.- TOMA POSESIÓN CARGO CONCEJAL: NEKANE PEREZ IRAZABAL.

Jaione Andueza Intxaurrendok, Aralarreko

Tras la dimisión presentada por Jaione Andue-

zinegotziak, zinegotzi-karguaren dimisioa aurkeztu ondoren, NEKANE PEREZ IRAZABALEk, zinegotzi kargua hartu egin behar du, talde honen zerrendako hurrengoa baita.

Kontuan hartuz, interesatuak nahiz zinegotzi hautatua egiaztatzen den kredentziala nahiz balizko bateraezintasun kausak eta ondasun aitorpenak aurkeztu dituela.

Hauteskunde Orokor Erregimeneko Lege Organikoaren 108.6. artikulua arabera, Alkateak honako hau galdetu dio:

“Zure kontzientzia eta ohoreagatik zin egiten edo hitzematen duzu zinegotzi izateak ezartzen dizkizun betebeharrak Erregearekiko leialtasunez zintzoki beteko dituzula, eta Konstituzioa Estatuaren arau nagusi bezala zaindu eta zainaraziko duzula?”

NEKANE PEREZ IRAZABALEk legeak hala aginduta hitzematen duela erantzun dio, eta horrela zinegotzi-kargua hartu du.

3.- UGAITZ ADO PRIETO: ZINEGOTZI KARGUA HARTZEA.-

Jose M^a Tellechea Michelenak, Bilduko zinegotziak, zinegotzi-karguaren dimisioa aurkeztu ondoren, eta kontuan hartuz Jon Mikel Matxiarena Aldalurrek, Ander Michelena Agestak eta Ines Rosario Machiarena Aldalurrek aurrez karguari uko egin diotela, UGAITZ ADO PRIETOk, zinegotzi kargua hartu egin behar du, talde honen zerrendako hurrengoa baita.

Kontuan hartuz, interesatuak nahiz zinegotzi hautatua egiaztatzen den kredentziala nahiz balizko bateraezintasun kausak eta ondasun aitorpenak aurkeztu dituela.

za Intxaurren, concejal de Aralar, procede la toma de posesión de NEKANE PEREZ IRAZABAL, por ser la siguiente en la lista del citado partido.

Teniendo en cuenta que la interesada ha presentado la credencial que le acredita como concejal electa así como las declaraciones de bienes patrimoniales y posibles causas de incompatibilidad.

De acuerdo con lo establecido en el artículo 108.6 de la Ley Orgánica de Régimen Electoral General la Alcaldesa le pregunta:

“Juras o prometes por tu conciencia y honor cumplir fielmente las obligaciones del cargo de concejal con lealtad al Rey, y guardar la Constitución, como norma fundamental del Estado?”.

NEKANE PEREZ IRAZABAL contesta que por imperativo legal promete y así toma posesión del cargo.

3.- TOMA POSESIÓN CARGO CONCEJAL: UGAITZ ADO PRIETO.

Tras la dimisión presentada por José M^a Tellechea Michelena, concejal de Bildu, y la renuncia anticipada de Jon Mikel Matxiarena Aldalur, Ander Michelena Agesta e Inés Rosario Machiarena Aldalur, siguientes en la lista de dicha coalición, procede la toma de posesión de UGAITZ ADO PRIETO, por ser el siguiente en la citada lista.

Teniendo en cuenta que el interesado ha presentado la credencial que le acredita como concejal electo así como las declaraciones de bienes patrimoniales y posibles causas de incompatibilidad.

Hauteskunde Orokor Erregimeneko Lege Organikoaren 108.6. artikulua arabera, Alkateak honako hau galdetu dio:

“Zure kontzientzia eta ohoreagatik zin egingiten edo hitzematen duzu zinegotzi izateak ezartzen dizkizun betebeharrak Erregearekiko leialtasunez zintzoki beteko dituzula, eta Konstituzioa Estatuaren arau nagusi bezala zaindu eta zainaraziko duzula?”

UGAITZ ADO PRIETOk legeak hola behartzen duelako baietz erantzun dio, eta horrela zinegotzi-kargua hartu du.

4.- UDAL LAN BATZORDE ETA BESTE ERAKUNDEETAN ORDEZKARI IZENDATZEA.

Aho batez, honako erabakia hartu dute:

Zinegotzi berriek kargua hartu ondoren, Udal Lan Batzorde eta beste erakundeen ordezkioak izendatu behar dira.

Hori dela eta, ERABAKI DUTE:

- 1) Jose M. Portu Berasategui nahiz Garaipena nahiz Hirigintza nahiz Ogasuna eta langilego Batzordetako partaide izendatzea.**
- 2) Nekane Perez Irazabal Gizarte Gaiak eta Kultura Batzordetako partaide izendatzea, Gizarte Gaiak Batzordeko burua izanen delarik.**
- 3) Ugaitz Ado Prieto nahiz Kirolak nahiz Mendia eta Ingurumen Batzordeetako partaide izendatzea, azken honen burua Fernando Berasain Gainzarekin batera izanen delarik.**

De acuerdo con lo establecido en el artículo 108.6 de la Ley Orgánica de Régimen Electoral General la Alcaldesa le pregunta:

“Juras o prometes por tu conciencia y honor cumplir fielmente las obligaciones del cargo de concejal con lealtad al Rey, y guardar la Constitución, como norma fundamental del Estado?”.

UGAITZ ADO PRIETO contesta que sí por imperativo legal y así toma posesión del cargo.

4.- NOMBRAMIENTO DE REPRESENTANTES EN LAS COMISIONES MUNICIPALES Y OTROS ORGANISMOS.

Por unanimidad, adoptan el siguiente acuerdo

Tras la toma de posesión de la nueva y nuevo concejal deben nombrarse representantes en las Comisiones de trabajo municipales y otros organismos.

Por ello, SE ACUERDA:

- 1) Nombrar a José M. Portu Berasategui miembro de las Comisiones de Desarrollo, Urbanismo y Hacienda y Personal.
- 2) Nombrar a Nekane Pérez Irazabal miembro de las Comisiones de Asuntos Sociales y Cultura siendo responsable de la de Asuntos Sociales.
- 3) Nombrar a Ugaitz Ado Prieto miembro de las Comisiones de Deportes y de Montes y Medioambiente, siendo responsable de esta última junto con Fernando Berasain Gainza

- | | |
|---|--|
| 4) Nekane Perez Irazabal Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatean Udal ordezkari izendatzea. | 4) Nombrar a Nekane Pérez Irazabal representante del Ayuntamiento en la Mancomunidad de Servicios Sociales de Base. |
| 5) M^a Sol M. Taberna Iratzoki Zonaldeko Osasun Kontseiluan eta “Jesusen Bihotza” Ikastetxean Udal ordezkari izendatzea. | 5) Nombrar a M ^a Sol M. Taberna Iratzoki representante del Ayuntamiento en el Consejo de Salud de Zona y en el Colegio “Sagrado Corazón”. |
| 6) Musika Eskolan Jose M. Portu Berasategui Udal ordezkari izendatzea. | 6) Nombrar a José M. Portu Berasategui representante del Ayuntamiento en la Escuela de Música. |
| 7) Dagokion organo edo entitateari udal ordezkariaren aldaketaren berri ematea, behar diren ondorioetarako. | 7) Comunicar a cada entidad u órgano correspondiente el cambio de representante municipal a los efectos oportunos. |

4.- IBARDINEN SAKELAKO TELEFONO-DEIEN BANAGUNEA JARTZEKO 40 M2-KO HERRI-LURRA (P.4, L.17, A.L) OKUPATZEKO ESPEDIENTEA, HASIERA BATEZ ONESTEIA.

4.- EXPEDIENTE OCUPACIÓN 40 M2 DE TERRENO COMUNAL (P.4, P.17, S.L) EN IBARDIN PARA INSTALACIÓN DE ESTACIÓN BASE DE TELEFONÍA MOVIL, APROBACIÓN INICIAL.

Gai hau erabaki gabe gelditu zen aurreko osoko bilkuran baldintzaren pleguan sortutako zalantzaengatik.

Este tema quedó pendiente en el anterior pleno por alguna duda sobre el pliego de condiciones.

Idazkariak, aurreko bileran aipatu zuen bezala, antena konpartitzeko obligazioa foru arautegian agertzen dela dio, baina hala ere, baldintza pleguan ere sartu duela.

La Secretaria comenta que, como ya señaló en la anterior sesión la obligación de compartir las antenas está regulada en la normativa foral, pero no obstante, lo ha incluido, también, en el pliego de condiciones

Azalpen horren ondotik, aho batez, legeak eskatutako gehiengo osoz betea izanik, honako erabakia hartu dute:

Tras esta explicación, por unanimidad, que resulta la mayoría absoluta, legalmente exigida, adoptan el siguiente acuerdo:

Ikusirik, Ibardinen, 4. poligonoko 17. lurtatik L azpilur-zatian, 40 metro karratuko herri-lurra okupatzeko espedientea, VODAFONE ESPAÑA S.A.U.k sustatua.

Visto expediente de ocupación de 40 metros cuadrados de terreno comunal pertenecientes a la subparcela L de la parcela 17 del polígono 4 en Ibardin, promovido por VODAFONE ESPAÑA S.A.U.

Ikusirik, Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legearen 322.1.a) artikuluari jarraikiz Idazkaritzak horri buruz eginiko txostena.

Visto informe de Secretaría emitido al efecto según lo establecido en el artículo 322.1.a) de la Ley Foral 6/1990 de Administración Local.

Legeak eskatutako gehiengo osoz, ERA-BAKI DUTE:

1) Eskatutako herri-lurra lagatzeko zuzendu behar duen baldintza-plegua onestea.

2) Lehen aipatu den herri-lurra okupatzeko espedientea hasiera batez onestea.

3) Espediente hau 15 lan eguneko epean jendaurrean jartzea.

4) Alegaziorik ez balego, hasiera batez onartutako herri-lurra okupatzeko espediente hau, behin betiko bihurtuko dela adieraztea eta, horren ondotik, Nafarroako Gobernuari igorriko zaio behin betiko onespena egin dezala.

5) Erabaki hau interesatuari bidaltzea. Aldi berean, adieraztea izapide-egintza denez ezin dela inolako errekurtsorik jarri.

6.- BABES ZIBILAREN ARLOAN NAFARROAKO LARRIALDIETAKO AGENTZIAREKIN SINATZEKO HITZARME-NA ONESTEA.

Alkateak gai honen berri eman ondoren, aho batez, hartu dute erabaki hau:

Ikusirik, BERAko Suhiltzaile borondatezkoendako babes zibilaren arloan Nafarroako Larrialdietako Agentziarekin Udalak sinatu behar duen hitzarmena.

ERABAKI DUTE:

1) BERAko Suhiltzaile borondatezkoendako Babes Zibilaren arloan Nafarroako

Por la mayoría absoluta, legalmente exigida, SE ACUERDA:

1) Aprobar el pliego de condiciones que ha de regir la concesión del terreno comunal solicitado.

2) Aprobar inicialmente la ocupación del terreno comunal antes reseñado..

3) Someter a información pública el expediente durante el plazo de 15 días laborables.

4) Señalar que si no hubiera alegaciones la aprobación inicial de este expediente de ocupación de terreno comunal pasará a aprobación definitiva y se remitirá el mismo al Gobierno de Navarra para su aprobación definitiva.

5) Trasladar este acuerdo al solicitante, indicándoles que por tratarse de un acto de mero trámite no cabe recurso alguno.

6.- APROBACION CONVENIO A FIRMAR CON LA AGENCIA NAVARRA DE EMERGENCIAS EN MATERIA DE PROTECCIÓN CIVIL.

Tras la información dada por la Alcaldesa sobre este tema, por unanimidad, adoptan el siguiente acuerdo:

Visto convenio a firmar con la Agencia Navarra de Emergencias en materia de protección civil para los bomberos voluntarios de BERA.

SE ACUERDA:

1) Aprobar el convenio a firmar con la Agencia Navarra de Emergencias en materia de

Larrialdietako Agentziarekin Udalak sinatu behar duen hitzarmena onestea.

2) Aipatu hitzarmena M^o Sol M. Taberna Iratzoki alkateak, edo legez ordezkatzan duenak, sinatuko duela adieraztea.

7.- IZENDATU DEN ALKATEORDE BERRIA JAKINARAZTEA.-

Jose M. Tellechea zinegotziaren dimisioa dela eta, 3. alkate-orde berria izendatzen duen 32/2012 Alkatearen ebazpenaren jakinen gainean gelditu dira.

8.- “HERRIRA” MUGIMENDUAREN MOZIOA: GAIXOTASUN LARRIA DUTEN NAFARROAKO PRESOEN ASKATASUNAREN ALDE.

Alkateak mozioa irakurri eta horren ondoren, bozketa eginda, 9 aldeko boto (Aralar, Bildu eta EAJ/PNV) eta abstentzio bat (UPN) ageri dira, beraz, ondoan literalki idazten den mozioa onartu dute:

ARRAZOIEN AZALPENA

HERRIRA mugimenduak, Giza Eskubideei buruzko Deklarazio Unibertsalaren printzipioak gogoan, gaixotasun larriak dituzten lau preso nafarrak berehala askatzea eskatzen du:

Iñaki Erro Zazu (Donibane). Almeríako kartzelan. 25 urte daramatza preso. Hiru odol-hoditako kardiopatia iskemiko larria du, eta, horregatik, hiru stent jarri behar izan zizkieten eskuineko arteria koronarioan, ezkerreko arteria koronarioan eta beheranzko aurreko arterian. Eguberrietan Almeríako ospitalean ingresaturik egon zen. Orain kartzelan dago berriz. Zigor osoa bete zuen 2010eko maiatzan.

protección civil para los bomberos voluntarios de BERA.

2) Señalar que la Alcaldesa M^a Sol M. Taberna Iratzoki, o quien legalmente le sustituya, será quien llevará a cabo la firma de dicho convenio.

7.- COMUNICACIÓN NUEVO NOMBRAMIENTO TENIENTE-ALCALDE.

Quedan en conocimiento de la Resolución de la Alcaldesa 32/2012 por la que se nombra nuevo 3. Teniente-Alcalde con motivo de la dimisión del concejal, José M^a Tellechea.

8.- MOCIÓN MOVIMIENTO “HERRIRA”: A FAVOR DE LA LIBERTAD DE LOS PRESOS/AS DE NAVARRA CON ENFERMEDAD GRAVE.

La Alcaldesa lee la moción, después se lleva a cabo la votación que resulta 9 votos a favor (Aralar, Bildu y EAJ/PNV) y una abstención (UPN), por lo que se aprueba la moción que literalmente se transcribe a continuación:

EXPOSICION DE MOTIVOS

El movimiento Herrira, haciéndose eco de los principios contenidos en la Declaración Universal de Derechos Humanos, pide la excarcelación inmediata de cuatro presos navarros que sufren enfermedades graves:

Iñaki Erro Zazu (Iruñea-Donibane) Preso en Almería. Lleva 25 años en la cárcel. Sufre una cardiopatía isquémica severa de tres vasos, lo que obligó a la colocación de tres stents en las arterias coronaria derecha, coronaria izquierda y arteria descendente anterior. Tras permanecer ingresado en el hospital de Almería durante las Navidades, ahora se encuentra de nuevo en la cárcel. Cumplió su condena en mayo de 2010.

Jesus Maria Mendinueta (Arbizu). Zuerako kartzelan (Zaragoza). 20 urte daramatza preso. Gaixotasun erreumatikoa du, afektazio sistemikoa duena. Hori dela-eta, aurrealdeko ubeitisa du (begiko gaitza). Bi disko-eten ere baditu (lepoaldean eta gerrialdean), lepoko mina eta ziatika sortzen dizkietenak. Zigor osoa bete zuen 2011ko maiatzean.

Iñaki Etxeberria (Donibane). Topasko kartzelan dago (Salamanca). 16 urte daramatza preso. Bilakaera luzeko miopia magna eta beste zenbait patologia ditu bi begietan, horien artean betsarearen errikoa hemorragiaren ondorioz. Ikusmen galera handia du, baita itsu gelditzeko arriskua ere.

Josetxo Arizkuren (Alde Zaharra). A Lamako kartzelan dago. 13 urte daramatza preso. Kardiopatia iskemikoa du, behe-ranzko aurreko arteria koronarioaren hasierako parte erasan diona. Hori dela-eta, stent bat jarri behar izan diote arteria horretan.

Ahalik lasterrena libre uzteko eskatzen dugu, behar bezalako tratamendua jar diezaieten jasaten dituzten gaitz Larreytarako. Bestela, kartzelan jarraitzeak patologiak okerragotu litzake, eta sendaezin bihurtu. Eta horri gehitu behar zaio etxetik ehunka kilometrora daudela, espetxeko salbuespen-erregimenean, eta konfiantzako medikuek behar bezalako arreta emateko inolako aukerarik gabe.

HERRIRA mugimenduak manifestazio baterako deia egiten du neurri horien alde. Manifestazioa Iruñean egingen da, martxoaren 31n, goiburu honekin: “Gaixotasun larria duten presoak herrira”.

Adierazitako guztiarengatik, BERAko Udalak ERABAKI HAUEK hartu ditu

Jesús María Mendinueta (Arbizu). Preso en Zuera (Zaragoza). Lleva 20 años en la cárcel. Padece una probable enfermedad reumática con afectación sistémica, lo que le ha generado una uveitis anterior (afectación ocular). También padece dos hernias discales (cervical y lumbar) que le producen dolor en el cuello y ciático. Cumplió su condena en mayo de 2011.

Iñaki Etxeberria (Iruñea-Donibane). Preso en Topas (Salamanca). Lleva 16 años en la cárcel. Padece miopía magna de larga evolución y diversas patologías en ambos ojos, entre ellas un desprendimiento de retina por hemorragia retiniana. Ya ha sufrido una grave pérdida de visión y corre el serio riesgo de quedarse ciego.

Josetxo Arizkuren (Iruñea-Alde Zaharra). Preso en A Lama (A Coruña). 13 años en la cárcel. Padece cardiopatía isquémica, con lesión al comienzo de arteria coronaria descendente anterior, lo que obligó a la colocación de un stent en esta arteria.

Su puesta en libertad debe ser inmediata para que puedan ser atendidos correctamente de las grandes dolencias que padecen y así evitar que su estancia en prisión contribuya a que estas patologías se agraven y puedan llegar a ser irreversibles. Máxime cuando se encuentran dispersados a cientos de kilómetros, sometidos a un régimen penitenciario de excepción y sin posibilidad de ser atendidos correctamente por sus médicos de confianza.

En apoyo de estas medidas el movimiento HERRIRA ha resuelto convocar una Manifestación en Iruñea para el próximo sábado 31 de marzo, con el lema: “Presos enfermos graves a casa”.

Por todo lo dicho, el Ayuntamiento de BERA, adopta los siguientes ACUERDOS:

1. – Iñaki Erro, Iñaki Etxeberria, Jesus Mari Mendinueta eta Josetxo Arizkuren preso nafarrak lehenbailehen aske utz ditzatela eskatzea. Eskaerak Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsala bete beharra du oinarria.

2.- Udal honek bere konpromisoa agertzen du bake prozesuarekin eta gatazkaren konponbidearekin, eta eskaera luzatzen die alde guztiei, urratsak egiten jarrai dezaten gizarte honen gehiengoak nahi duen eszenatokira lehenbailehen iristeko. Ildo horretan, udal honen ustez, aurrera egiteko funtsezko gaiak dira presoak Euskal Herrian elkartzea eta gaixo dauden presoak eta zigor osoa edo zigorraren hiru laurden bete dituztenak aske uztea.

3.- Horregatik guztiatik, udal honek bere atxikimendua ematen dio HERRIRA mugimenduak egin duen deialdiari, datorren martxoaren 31n, larunbata, Iruñean manifestazio bat egiteko, goiburu honekin: “Gai-xotasun larriak dituzten presoak etxera”

4.- Udal honek herritarrei jakinaraziko die erabaki honen edukia, eta herriko bizilagun guztiak animatuko ditu parte har dezaten bakerako eszenatokia eta gatazkaren konponketa lehenbailehen lortzeko helburuarekin sortzen diren ekimenetan.

9.- LAN ERREFORMAREN AURKAKO MOZIOA.

Alkateak mozioa irakurri eta bozketa egin ondoren, 9 boto alde (Aralar, Bildu eta EAJ/PNV) eta abstentzio bat (UPN) suertatu dira. Beraz, ondoan osorik idazten den mozioa onartu dute:

MOTIBAZIOA

Otsailaren 11n, Espainiako Erresumako Gobernuak lan-merkatuaren erreformara-

1.- Pedir la libertad inmediata para los cuatro presos navarros, Iñaki Erro, Iñaki Etxeberria, Jesús Mari Mendinueta y Josetxo Arizkuren. petición que se fundamenta en la exigencia de cumplimiento de los derechos humanos recogidos en la declaración universal.

2.- Este Ayuntamiento muestra su compromiso con el proceso de paz y resolución del conflicto, y pide a todas las partes que sigan dando pasos para llegar cuanto antes al escenario que desea la mayoría de esta sociedad. En este sentido, el reagrupamiento de los presos y presas en Euskal Herria, la liberación de los presos enfermos y de quienes ya han cumplido su condena o 3/4 de la misma nos parecen elementos claves para poder seguir avanzando.

3.- Por ello, este ayuntamiento se adhiere a la convocatoria de manifestación que el movimiento Herrira ha realizado en Iruñea para el próximo sábado 31 de marzo, con el lema: “Presos con enfermedades graves a casa”.

4.- Este Ayuntamiento pondrá en conocimiento de la ciudadanía el contenido de este acuerdo y animará a todos y todas las vecinas del municipio a que se impliquen en todas las dinámicas destinadas a conseguir cuanto antes un escenario de paz y resolución del conflicto.

9.- MOCIÓN CONTRA LA REFORMA LABORAL.

La Alcaldesa lee la moción y tras la votación resultan 9 votos a favor (Aralar, Bildu y EAJ/PNV) y una abstención (UPN). Por lo que, aprueban la moción que literalmente se transcribe a continuación:

MOTIVACIÓN

El Gobierno del Reino de España publicó en el Boletín Oficial del Estado del 11 de febrero el

ko Dekretua argitaratu zuen, Estatuaren Aldizkari Ofizialean. Erreforma hori langileen eskubideen aurkako eraso bortitza da. Langile kopurua igotzeko aitzakiaren azpian, erreformaren benetako asmo bakarra ezkututzen da: soldatak eta kaleratzeagatiko kalte-ordainak murriztea.

Kaleratzeko unean langileak dituen eskubideak muturreraino murriztu dira: joan zen mendeko baldintzetara itzuliz, Mariano Rajoyren taldeak doako kaleratze askea berrezarri du kontratuko lehen 12 hilabeteetarako, ia enpresa guztiek, % 99,23k zehazkiago, erabili ahal izango dutena. Hori gutxi balitz, Erresumako Gobernuak beste pizgarri bat eman nahi izan die enpresaburuei kontratu berri horren harira, kontratu hori indartzeko hobariak emango baititu. Ildo beretik, gainerako kontratuak ere murriztu egin dira, urte bakoitzeko 45 eguneko kalte-ordaina desagertu egin baita, urte bakoitzeko 20 eguneko kalte-ordaineko kaleratzea orokortzearekin batera.

Erreforma horrek ezerezean utzi nahi du negoziazio kolektiboaren bitartez orain artean lortutako guztia. Horretarako, langileen ordezkariak eskuak lotu dizkie patronalaren aurrean: enpresa-hitzarmenei lehenetsuna emango zaie sektore-hitzarmenen aurretik, ultrajarduera bi urtera bakarrik mugatu da, eta, hori gutxi balitz, enpresek hitzarmena bertan behera uzteko aukera izango dute, hitzarmena indargabetuta utzita. Gainera, enpresaburuek langileen lan-baldintzak nahierara aldatu ahal izango dituzte, ordutegia, kokapen geografikoa edota soldata aldatuz.

Erreforma ez da horretan geratuko, ordea. Gazteei ere eraso egingo die beste behin, batetik, gazteentzako prestakuntza-kontratu 33 urtera arte luzatuko duelako, 481€-ko soldatarekin, eta, bestetik, enpresei

Decreto de la reforma del mercado laboral. Esta reforma es un atropello a los derechos de los trabajadores. Bajo la excusa de aumentar el número de personas trabajadoras se ha perpetrado una reforma que lo único que busca es reducir los salarios y las indemnizaciones por despido.

El despido se reduce al máximo: Volviendo a las condiciones del siglo anterior el equipo de Mariano Rajoy ha reinstaurado el despido libre y gratuito en los 12 primeros meses de contrato, que podrá ser usado por la práctica totalidad, el 99,23% de las empresas. Por si fuera poco atractivo para el empresariado este nuevo tipo de contrato el Gobierno del Reino dará bonificaciones para potenciarlo. Por si había alguna duda, el resto de contratos también se han reducido; desapareciendo los 45 días por año de indemnización y generalizándose el despido con 20 días por año.

Se trata de una reforma que quiere terminar con los logros de la negociación colectiva. Para ello, maniata a los representantes de los y las trabajadoras ante la patronal: los convenios principales pasan a ser los convenios de empresa en lugar de los convenios sectoriales, se limita la ultraactividad a solo dos años y por si fuera poco se permite a las empresas descolgarse del convenio acabando con su fuerza vinculante. Además, los empresarios podrán modificar las condiciones laborales de las y los trabajadores a su antojo, cambiándoles el horario, la localización geográfica o el salario.

La reforma no se queda ahí, también realiza un nuevo ataque a los jóvenes, extendiendo el Contrato de formación para jóvenes hasta los 33 años con un sueldo de 481€ y perdonando las cotizaciones sociales a las empresas. Por

gizarte-kotizazioak barkatuko dizkielako. Bestetik, erreformaren eraginez, langileak laneratzeko kudeaketa pribatizatu egin liteke, zeregin hori Aldi Baterako Laneko Enpresen esku utzita.

Argi dago Euskal Herriko langileek ez dutela erreforma hori begi onez ikusten, inondik inora. Horregatik, argi eta garbi aldarrikatu behar dugu Euskal Herriko gizarte- eta ekonomia-politikak erabakitzeko dagokigun eskubidea, eta behar-beharrezkoa dugu eskubide hori baliatzeko tresnak berehala eskuratzea. Gure lan-eskubideak defendatzeko bide bakarra delako.

Aurreko guztia kontuan hartuta, BERAKO OSOKO BILKURAK zera ONARTU DU:

1. Udal honek lan-erreforma salatu nahi du, enpresa-kudeaketa eskasaren eta ekonomia-eredu okerraren ondorioen zama guztia langileen bizkar gainean utzi nahi duelako.

2. Udal honek Espainiako Erresumako Gobernuari lan-erreforma lehenbailehen indargabetzea eskatzen dio.

3. Udal honek lan Harremanen Euskal Esparrua indarrean jartzea eskatzen du, lan-merkatua arautu behar duten legeak erabakitzeko aukera euskal herritarroi emango diguna.

4. Udal honek herritarrei dei egiten die martxoaren 29an lan-erreformaren aurka deitutako Greba Orokorrean parte har dezaten.

5. Udal honek Euskal Herriko legebiltzar-kide hautetsiei Kongresuan eta Senatuan lan-erreformaren aurkako botoa ematea eskatzen die.

6. Mozio hau Nafarroako Gobernuari bidaliko zaio eta ohiko moduan plazaratuko da.

otra parte, la reforma amenaza con privatizar la gestión de colocación de los y las trabajadores dejándolo en manos de las ETTs.

Está claro que las trabajadoras y trabajadores de Euskal Herria no están de acuerdo con esta reforma. Por eso, es necesario que consigamos las herramientas para que materialicen nuestro derecho a decidir sobre las políticas sociales y económicas de Euskal Herria. No disponemos de otro medio para defender nuestros derechos laborales.

Teniendo en cuenta todo lo anterior, el PLENO DE BERA APRUEBA lo siguiente:

1. El Ayuntamiento de BERA critica la reforma laboral por cargar las consecuencias de la mala gestión empresarial y del modelo económico equivocado en los trabajadores y las trabajadoras.

2. El Ayuntamiento de BERA insta al Gobierno del Reino de España a retirar la reforma laboral.

3. Este Ayuntamiento exige un Marco Vasco de Relaciones Laborales que posibilite que decidamos en Euskal Herria cómo tienen que ser las Leyes que rigen el mercado laboral.

4. Este Ayuntamiento anima a la ciudadanía a participar en la jornada de Huelga General convocada para el día 29 de Marzo en contra de la reforma laboral.

5. Este Ayuntamiento reclama a los/las parlamentarios/as electos por Euskal Herria el voto en contra de la reforma laboral en el congreso y en el senado.

6. Esta moción se notificará al Gobierno de Navarra y se hará pública mediante los conductos habituales.

10.- 2012KO MARTXOAREN 8RAKO MANIFESTUA.

Jon Abrilek irakurri du manifestua, honen ondotik, aho batez, onartu dute, ondoko testua izanik:

Beste urte batez, 2012 urtean, mundu mailako Nazio Batuen oroitzapenarekin bat eginez Emakumeen Nazioarteko Eguna ospatzen dugu. “Martxoak 8” honetan, genero arrazoiak direla eta gizartean oraindik errotuta ditugun desberdintasun eta diskriminazioak gaindituz, emakumeek izaki sozial moduan autonomia eta independentzia osoa lortzearen garrantzia azpimarratu nahi dugu.

Berdintasunezko gizarte batean bizi gare-naren sinesmena geroz eta zabalduagoa dago. Boto eskubideak, ordezkari-tza politikoak, eskolatze edo hezkuntzarako sarbi-deak, diru sarrera propioak eta lehen per-sonan parte hartzeko aukerak, emakumeak gizonezkoen parean daudela pentsarazten baitute. Berdintasun formalaren irudikeria baino ez da.

Alabaina, errealitateak etengabe aldendu egiten gaitu, emakumeenganako biolentzia estatistikek, lan eremuko desberdintasun-ek, etxeko zaintza eta ardura desberdintasun-ek... argi erakusten duten moduan. Gizar-teko kide garen aldetik, diskriminazioak gurean oraindik bizirik jarraitzen duela eta emakumeon eskubideak eraginkorrak izan daitezen lanean tinko jarraitu behar dugula argi izan behar dugu.

Genero pribilegioen amaiera ez da mehatxu pertsonal moduan hartu behar, gizartea osatzen duten pertsonen bizi kalitatea hobetu-ko duen onura bilatuko duen garapen

10.- MANIFIESTO PARA EL 8 DE MARZO DE 2012.

Jon Abril lee el manifiesto y, posteriormente, por unanimidad, se aprueba siendo el texto el siguiente:

Un año más, en el 2012, nos sumamos a la conmemoración de Naciones Unidas a nivel mundial y celebramos el Día Internacional de las Mujeres. Este “8 de marzo” queremos destacar la importancia de que las mujeres consigan su autonomía e independencia plenas como seres sociales, superando así las desigualdades y discriminaciones persistentes en nuestra sociedad por razón de género.

Cada vez está más extendida la creencia de que vivimos en una sociedad igualitaria. El derecho al voto, la representación política, la alta escolaridad o acceso a la educación, los ingresos propios, y la participación en primera persona, hacen pensar a gran parte de la ciudadanía que las mujeres ya están en igualdad con los hombres. Es el espejismo de la igualdad formal.

Sin embargo, la realidad tozudamente se empeña en desarmarlo con las estadísticas actuales en el ámbito de la violencia contra las mujeres, las desigualdades en el mercado laboral, en el cuidado y las responsabilidades domésticas, en la salud, etc. Como ciudadanía debemos ser conscientes de que aun existen discriminaciones y que hay que continuar trabajando y luchando por hacer efectivos los derechos de las mujeres.

El fin de los privilegios de género no debiera ser tomado como una amenaza personal sino como una oportunidad para trabajar en un desarrollo sostenible que mejore la calidad de

jasangarri batean lan egiteko aukera moduan baizik. Inguruaren osotasuna, bideragarritasun ekonomikoa eta egungo eta biharko belaunaldiendako gizon eta emakumezkoak pertsona moduan desberdinak baina aukerei dagokionez berdinak izanen diren gizarte bidezkoago bati erantzunen dion etorkizuna eraiki dezakegu.

Honengatik guztiagatik,

ADIERAZTEN DUGU emakumezko eta gizonezkoen arteko berdintasuna erdiesteko lanean tinko jarraitzeko konpromiso sendoa, eta instituzio eta talde desberdinek 2012ko martxoak 8 ospatzeko antolatutako ekimenetan parte hartzera gonbidatzen zaituztegu.

11.- BANDOAK ETA ALKATEAREN EBAZPENAK.-

Honako bando eta Alkatetzaren ebazpen hauetaz jakinen ganean gelditu dira:

- 1) Bandoak: B3/2012.
- 2) Ebazpenak: 2012ko otsailaren 13ko 27. ebazpenetik 2012ko martxoaren 5eko 45.era arte.

Gai zerrendatik kanpo, premiazko bozketa egin ondoren, aho batez, legeak eskatutako gehiengo osoa bete izanik, honako gai hau tratatu dute:

12.- UPN-AREN AURKA EGINIKO PINTADEI BURUZKO MOZIOA.

Alkateak mozioa irakurri ondoren, 6 boto alde (Aralar, PNV eta UPN) eta 4 abstentzio (Bildu) izanda, onartu dute hurrengo testua izanik:

Asteburuan UPNren kontra herrian agertu diren pintaden aitzinean, mozio honen bi-

vida de todas las personas que conforman la ciudadanía. Podemos construir un futuro que atienda la integridad ambiental, la viabilidad económica y una sociedad justa para las generaciones presentes y futuras, donde mujeres y hombres sean diferentes como personas e iguales en oportunidades.

Por todo ello,

MANIFESTAMOS nuestro firme compromiso de seguir trabajando en la consecución real de la igualdad entre mujeres y hombres y os invitamos a celebrar este 8 de marzo de 2012 participando en los actos organizados por instituciones y colectivos para su conmemoración.

11.- BANDOS Y RESOLUCIONES DE ALCALDÍA.-

Se dan por enterados de los siguientes bandos y resoluciones de la Alcaldía:

- 1) Bandos: B3/2012.
- 2) Resoluciones: De la resolución nº 27 de 13 de febrero de 2012 a la nº 45 de 5 de marzo de 2012.

Fuera del orden del día, previa votación de urgencia, por unanimidad, que representa la mayoría legalmente exigida, se trata el siguiente asunto:

12.- MOCIÓN SOBRE LAS PINTADAS HECHAS CONTRA UPN.

La Alcaldesa lee la moción y por 6 votos a favor (Aralar, PNV y UPN) y 4 abstenciones (Bildu) se aprueba con el siguiente texto:

Ante las pintadas aparecidas el fin de semana contra UPN en nuestra localidad, por medio de

dez, honakoa agertu nahi dugu:

1) **Udal honek jazarpen, mehatxu eta presio mota guztien aurkako konpromezu argia du, edozein dela ere pertsona edo talde horien jarduera edota ideologia politikoa. Desberdintasun politikoak eztabaidan geratu behar direla irizten diogu, eta hortaz, UPNren kontrako pintadak txarresten ditugu.**

2) **Euskal Herriko egoera politiko berriak jokamolde berriak behar ditu, eta horrelako gertaerak lekuz kanpo daudela irizten diogu. Gisa bereko gertakaririk berriz eman ez dadin lan egiteko konpromisoa agertzen dugu udalbatza osatzen dugun talde guztiek, herrian elkarbizitzarako beharrezkoa den giroa sortzen lagunduz.**

3) **Akordio hau herritarrei eta komunikabideei jakinaraziko zaie, ohiko bideak erabiliz.**

13.- ESKARIAK ETA GALDERAK. BESTE UDAL ORGANOEEN KONTROLA.

Ez dira burutu.

Besterik gabe, Alkateak bilera bukatutzat eman du 20:10etan.

O.E. ALKATEA/ V.B. LA ALCALDESA
M^a Sol M. Taberna Iratzoki

esta moción queremos mostrar que:

1) Este Ayuntamiento tiene un compromiso claro en contra de toda amenaza, presión o persecución contra toda persona por razón de su actividad o ideología política. Consideramos que las diferencias políticas deben quedar en el debate, y por ello, reprobamos las pintadas aparecidas contra UPN.

2) El nuevo tiempo político de Euskal Herria requiere de nuevas actitudes, y consideramos que este tipo de sucesos están fuera de lugar. Los grupos que formamos el Ayuntamiento nos comprometemos a trabajar para que no vuelvan a darse hechos similares en el futuro, ayudando a crear un ambiente de convivencia en el municipio.

3) Este acuerdo se comunicará a la ciudadanía y a los medios de comunicación, a través de los medios habituales.

.- RUEGOS Y PREGUNTAS. CONTROL DE LOS DEMÁS ÓRGANOS DE LA CORPORACIÓN.

No se producen.

No habiendo más asuntos, la Alcaldesa levanta la sesión a las 20:10 horas.

IDAZKARIA/ LA SECRETARIA
Pilar Chueca Intxusta